

Jasangarritasuna 2025
Asmodun banka



LABORAL Kutxan banka kooperatiboa gara, eta komunitate oparoagoak, berdinzaleagoak eta jasangarriagoak eraikitzen laguntzea da gure asmoa.



Bezeroak




Pertsonak



Gizartea

Zeinena da LABORAL Kutxa?


LABORAL Kutxaren kapitala beste kooperatiba batzuen, langile eta langile ohien (kolaboratzaileen) eta bezeroen esku dago.



Zer egiten dugu gure irabaziekin?

Gure irabazien % 25 gizartean banatzen dugu, bai zuzeneko ekarpenen bidez, bai MONDRAGON Fundazioaren bidez.

45 M€ baino gehiago 2025ean



INPAKTU-EREMUAK



**KOOPERATIBISMOA
SUSTATZEA**

- MONDRAGONeko erakundeak
- Erakunde kooperatiboak
- Nazioartekotzea
- Dimentsionamendua eta dibertsifikazioa
- Elkartasun kooperatiboa



**BERRIKUNTZA ETA
SUSTAPENA**

- Berrikuntza
- Ekintzailletza
- Jarduera berriak



**HEZKUNTZA ETA
PRESTAKUNTZA**

- Prestakuntza kooperatiboa
- Ikastetxeak
- Unibertsitatea



**KOMUNITATE
JASANGARRIAK**

- Euskara
- Osasuna, ongizatea eta kirola
- Kultura
- Klima eta biodibertsitatea
- Generoa eta dibertsitatea
- Pobrezia eta inklusioa

JARDUERAK

Kooperatiba bat gara, eta horrek esan nahi du...

➤ Demokrazia

Erabakiak **gardenak** dira, eta bazkide guztiok hartzen dugu parte kooperatibaren erabaki nagusietan.

➤ Soldata arautuak

Soldata-aldeak arautzeko irizpideak daude:

- Ordainsariak lanbide-kategoriaren arabekoak dira; ez dira negoziatzen.
- Kategorietan ez dago sexuaren arabeko soldata-alderik.
- Ordainsari-mugak daude.

➤ Soldata-ekitateak

Ordainsaririk handiena **4,35 aldiz** handiagoa da gure langile guztien ordainsarien erdiko balioa baino —ordainsaririk handiena kontuan hartu gabe—; IBEX 35eko enpresetan, berriz, 111* aldiz handiagoa da.

* Iturria: Oxfam Intermon

Aliantzak eta aintzatespenak

Global Alliance for Banking on Values (GABV) aliantzako kideak gara, balioak dituzten banku etikoen nazioarteko erakunde nagusikoak.

Global Alliance for Banking on Valuesen iritziz, bezeroekiko harreman estua eta gardentasuna dira gure indarguneetako batzuk.



Gizarte Ekonomiaren ziurtagiria eman digute.



Universitat Pompeu Fabra unibertsitatearen 2025eko azterlan batek baloraziorik handiena eman dio LABORAL Kutxari, baliodun banku-jarduera arduratsuaren kategorian.



Nazio Batuen **Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen** sinatzaile sortzaileak izan ginen.



Gizartearen parte gara

➤ 360 irisgarritasuna proiektua

Pertsona guztiek gurekin jardun ahal izatea nahi dugu, edozein dela ere haien egoera fisikoa edo adina. Horretarako, egokitu egin ditugu bulegoak, webgunea, aplikazioa, kutxazainak, hizkuntza eta abar.

➤ Finantza-hezkuntza

Gure lantaldeko 123 boluntariok finantza-hezkuntzako lantegiak eman dizkiete 859 laguni.

➤ Tokiko hornitzaileak

Gure ondasun eta zerbitzuen % 95 baino gehiago tokiko hornitzaileei erosten diegu.

➤ Berdintasuna

2025ean, % 36,8tik % 43,9ra pasatu da zuzendaritza-karguetan dauden emakumeen kopurua.

Gaztenpresa Fundazioa

Gaztenpresaren helburua da enplegua sortzen eta finkatzen laguntzea, enpresak sortzearen bidez.

2025ean, Gaztenpresak bi proiektu berri bultzatu ditu:

- **Legado:** erretiroa hartzen duten pertsonen laguntzeko, euren negozioak eduki nahi duten gazteei eskualdatzen.
- **Transforma:** kooperatiba bihurtu nahi duten sozietate txikiei laguntzeko.



2025ean, Gaztenpresak hauek sortzen lagundu du:

 > **438**
mikroenpresa

 > **856**
lanpostu

Produktu arduratsuak

➤ Etxebizitzak birgaitzea

222 M€

bideratu dira etxebizitzaren birgaitze energetikoa egitera eta irisgarritasuna hobetzera.

➤ Affinity txartelak

57.758 €

bideratu dira Medicus Mundira, Cáritasera eta Ikastolen Elkartera, Affinity txartelen bidez.

➤ Gizarte-ekonomiaren finantzaketa

50 M€ baino gehiago

bideratu dira, Europako Inbertsio Funtsarekin (EIFekin) egindako hitzarmenetako eragiketen bidez, gizarte-ekonomiari eta enpresa txikiei laguntzera.

➤ Inbertsio-funts jasangarriak

1.421 M€

bideratu dira ezaugarri jasangarriak dituzten inbertsio-funtsetara.




➤ LK Konpromiso inbertsio-funtsa

530.761 €


Bideratu dira funts etiko eta jasangarri horren bidez, non LABORAL Kutxak gestio-komisioaren zati bat ematen dien bezeroek aukeratutako 6 GKeri: Medicus Mundi, Mundukide, Cáritas, Oxfam, Unicef edo Gurutze Gorria.

Urte asko daramatzagu lanean, ingurumenean dugun inpaktua txikitzeko

➤ Paperaren kontsumoaren bilakaera, 2019tik 2025era



➤ Karbono-aztarna, langile bakoitzeko



➤ Bulego jasangarria

Gure bulego-eredu berriko bulego pilotua eraikuntza jasangarriaren BREEAM zigiluarekin egiaztatu dugu.

Gure bulegoen banaketa geografikoa



■ LKren partikularren bulegoak

■ LKren enpresen bulegoak

■ Lagun Aroren bitartekaritza-bulegoak



LABORAL
kutxa